ERANDIO. Datorren astean zabalduko dabe izena emoteko epea



EGUNKARIA
Adinaren arabera 1000 edo 3000 metro artean korridu beharko dabe partehartzaileek.

Jorge Blanco Oroimenezkoa eratu dabe hilaren 24rako

Erandioko Atletismo Eskoleak hamahirugarren urtez antolatu dau

Veronica Muñoz

Atletismozale guztiek zita bat daukie zezeilaren 24an Erandion. Izan be, egun horretarako Jorge Blanco orain urte batzuk trafiko istripuan hildako atleta erandioztarraren omenez eginiko herri krosea gertau dau Erandioko Atletismo Eskoleak, hamahirugarren urtez.

Aprobea domekan izango da, eta lehenengo lasterketea goizeko 10:00etan hasiko da. Betiko moduan, ikasleentzako zein helduentzako mailak antolatu dabez. 1.000 eta 3.000 metro arteko ibilbideak gertau dabez, partaideen adinea eta sexua kontuan hartuta.

Izena emoteko epea datorren astelehenean zabalduko dabe, eta gura dauenak aste osoan eukiko dau izena emoteko aukerea, arrastiko 18:30etik 20:30era astegunetan, eta zapatuan goizeko 11:00etatik 13:00etara, Erandioko kiroldegian.

Postaz be emon leiteke izena, Erandioko 179 posta kutxan, eta faxaren bidez, inskripzino orria 94 467 67 00 zenbakira bidalita. Ikasleen maila guztietan parte hartzeko, barriz, talde eta eskola guztietara eta federazinora bidaliko diran inskripzino orriak bete beharko dira. Izena emotea doan izango da.

Aldagelak, dutxak eta entrenetako gunea Tartanga kalean ipiniko dabez, urteerea eta helmugearen ondoan hain zuzen. Horrezaz ganera, autoak aparketako lekua egokituko da merkatuko plazan. Dana ondo urte daian, Erandioko Atletismo Eskolako lagunek, Udaltzaingoak eta Bizkaiko Atletismo Federazinoaren epaileek behar egingo dabe.

Lasterketa guztiak amaitu ostean, eguerdiko 12:30etik aurrera gitxi gora behera, Erandioko Uztargi taldeak dantzaldia eskainiko dau Irailaren 23 plazan.

Horren ostean sariak bananduko dabez: garaikurrak, kirola egiteko arropea eta materiala, ardo botilak... Sari guztiok 13:00etatik aurrera banaduko dira, Irailaren 23 plazan be bai.

SOPELA. Beharrak emoteko epea martiaren 1etik 31 arte egongo da zabalik

San Pedro jaietarako kartel lehiaketan parte hartzeko oinarriak kaleratu dabez

V.M.

San Pedro jaietako kartel lehiaketan parte hartzeko oinarriak kaleratu dabez asteon, aurten Sopelako jaiak iragarteko erabiliko dan irudia topau guran. Lanak aurkezteko epea oraindino ez dago zabalik, baina dagoeneko parte hartzeko oinarriak kaleratu dabez. Kartelak emoteko epea martiaren 1etik 31 arte egongo da zabalik, udaletxeko bigarren solairuan, Kultura sailean. Gura daben pertsona guztiek hartu leikie parte, sopelaztarrek zein kanpokoek.

Oinarriei jagokenean, kartelak egiteko estilo eta teknikea libreak izango dira, baina lan guztiok neurri zehatz batzuk euki beharko dabez, Din A2 edo handiagoak. Karteletan ondorengo leloa agertu beharko da: *Sopelako San Pedro Jaiak 2002*.

Gazteendako eta helduentzako maila bana ezarri dabe, eta 60 eta 450 euro arteko sariak prestatu dabez irabazleentzat. Horrezaz ganera, lehenengo sailkatuak eginiko kartela jaietako pregoian agertuko da.

Beti lez, epaimahaia kultura arloko arduradunek osotuko dabe, beste lagun batzuen artean. Epaimahaiak apirilaren 5ean aukeratuko dauz lanik onenak, eta 6tik aurrera irabazleen izenak jakinarazoko dira.

LABURREAN

GETXO

Asteon hasi dira Kultur Etxearen egoitza nagusia atontzeko beharrak, Algortako Villamonte auzoan

Kultur Etxe barria atontzeko beharrak asteon hasi dira, Gobernu Taldeak gura eban moduan. Kultur Etxearen egoitza nagusia Algortako Villamonte auzoan ipiniko dabe, eta horretarako 1.350 metro koadroko lokala erabiliko dabe. Kultur Etxeko zerbitzu guztiak egokituko dabez lokal barri horretan, Algortako metro geltokitik hur-hurre: bulego guztiak, Urgull kaleko lokalean dagozan zerbitzu guztiak eta erabilera askotarako zazpi gela besteak beste. Villamonteko urbanizazinoan bizi diran auzokideek proiektuaren kontra azaldu ziran, lokal horretan garajetak egin gura ebezalako. PPk be mozinoa aurkeztu eban proiektuaren aurka, baina ez zan aurrera atera.

LEIOA

Torturearen aurkako astea gertau dabe Udondo gaztetxean

Torturearen aurkako astea antolatu dabe Udondo gaztetxean egunotarako. Gaur informatikearen ganeko ikastaro barria hasiko da gaztetxean, eta biharko, barriz, bideo emonaldia eratu dabe, *Hemen torturatzen da* izenburupean. Iluntzeko 19:30ean hasiko da, eta sarrerea doan izango da. Horrezaz ganera, aste osoan erakusketa bi zabaldu dabez Leioako gazte lokalean, *Torturea*, eta *Torturea eta emakumea* izenburukoak hurrenez hurren.

LEIOA

Gazte Bulegoaren sarrerea apaintzeko grafitiak egingo dabez

Gobernu Batzordeak 900 euroko aurrekontua onartu dau, Aterpe Leioa Gazte Bulegoaren pertsianak grafitiakaz apaintzeko. Horrezaz ganera, asteon Leioako Udala Pop Rock lehiaketarko oinarriak be onartu dabez, eta egitasmoa martxan ipinteko aurrekontua 6.888 eurokoa izango da. Bigarren urtez antolatu dabe lehiaketa hori Leioako Gazte Bulegotik, eta deialdia pop rock musikea joten daben talde gazteei zuzenduta dago.

SOPELA

Urigintza arloan herrian izandako aldaketak ezagutu arazoteko mapea agindu dau Gobernu Taldeak

Sopelan gero eta jente gehiago bizi da; izan be, azken urteotan etxebizitza eta azpiegitura barri asko egiten dabilz, eta Uribe Kostako udalerria biziteko aukeratzen daben lagunak gero eta gehiago dira. Hori dala eta, urigintza arloko ezaugarrien ganean dagozan planoak dagoeneko zahartuta geratu dira. Arlo horretan azken sasoian izandako aldaketen barri emoteko, Sopelako agintariek plano barria egiteko beharrak agindu dabez. Bertan agertuko dira eraikin barriak, kaleetan azken urteotan izandako aldaketarik nabarmenenak, eta Sopelako parke barriak beste azpiegitura batzuen artean.

MUNGIA

Ramon Agirre eta Joserra Senperena, Mugire Txokoan

Mungiako Mugire Txokoan ikuskizun programazino berezia gertau dabe hile honetarako. Datorren zapatuan, zezeilaren 16an, esate baterako, Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak *Ondo esan beharko* izenburuko ikuskizuna eroango dabe Agirre jauregira, mugiarren gozamenerako. Komeria eta musikea nahasten dauen umorez beteriko ikuskizuna aurkeztuko dabe Txokoan, iluntzeko 22:30etik aurrera. Sarrerak salgai dagoz herriko Kultur Etxean.

AGENDEA

GETXO

Zinekluba: *Gracias por el chocolate*, Claude Chabrolek zuzenduriko filma botako dabe gaur, Algortako Getxo Antzokian, Zineklub zikloaren barruan. Proiekzinoa 20:00etan hasiko da, eta sarrerea 2,40 eurotan dago. Filmaren ostean gura dauenak forum baten parte hartzeko aukerea izango dau.

SOPELA

Argazki lehiaketea: Udalak orain gitxi martxan ipini dauen argazki lehiaketan parte hartzeko epea datorren zapatuan amaituko da. Beharrak Sopelako udaletxean emon beharko dira hilaren 16a baino lehenago, eta irabazleak 150 euro eskuratuko dauz. Horrezaz ganera, aurkeztutako argazkia *Sopelana Gurea* udal aldizkarian agertuko da.